

Akta Sare_ hezkuntza Topaketa 2018

Noiz: maiatzaren 30ean / 9:30etatik - 17:00etara

Non: Gasteizko Berritzegunean

Bertaratuak: 60 irakasle / 46 ikastetxe

Egitaraua:

9:30 - 11:00 Ikastetxeen komunikazioak.

11:30 - 13:00 Mahainguru tematikoak.

13:00 - 13:30 Gogoeta kolektiboa hiru haizetara

15:00 - 16:30 Tailerrak: Txikipedia (8-12), Eus Wikipedia (12-16)

16:30 - 17:00 Gasteizkada

Landutakoak

1. Ikastetxeen esperientzia-aurkezpenak:

Lehen Hezkuntzan:

- Donostiako Arantzazuko Ama HLHI.
- Bilboko Intxixu ikastola HLHI.
- Laukizko Lauxeta eskola HLHI.
- Bilboko Artatse HLHI.

Bigarren Hezkuntzan:

- Arrigorriaga BHI
- Lekeitioko BHI (Bideokonferentziaz)
- Aretxabaletako Kurtzebarri BHI (Bideo grabazioa)
- Muskiz BHI
- Berriz BHI

2. Mahainguru tematikoak

Ondorengo gaiak jorratu dira , ikastetxeei bidali zitzaien [galdesortan](#) jasotako balorazioetatik abiatuta:

Metodologia aldaketa:

Galdesortan:

- Guretzako berriak diren metodologiak probatu dira ? (3,78/5)
- Metodologiaren eraginkortasunagatik datozen urteetan jarraituko ditugu erabiltzen ? (4,00/5)

Balorazioa:

Lehen Hezkuntzan:

- Orohar SH proiektuak hausnarketa egitea ahalbidetu du, klaustroan adostasunak lortzeko aukera emanez.
- Teknika berriak frogatu dira eta aurrera egiteko asmoa dute.
- Eraginkorrak: flipped clasroom, hasiera ebaluaziorako aplikazioak, gamifikazioa...
- LH-n aldaketa metodologiko handirik ez, lehendik aurrera zeramatenak baina baliabide berriak erabiliz. Klaustro osoaren inplikazioa..

Bigarren hezkuntzan:

- Metodologia aldaketak denbora behar du.
- Argi dago erronka metodologikoa dela eta ez teknologikoa.
- Sare_Hezkuntza Gelak laguntzen du martxan dagoenari bultzada ematen.

Unitate didaktikoak diseinatu eta sortu edo egokitu dituztenak.

Galdesortan:

- Liburu digitalekin izandako esperientzia ona ? (2,61/5).
- Pozik sortu ditugun materialekin ? (3,74/5)
- Materiala publikoki partekatzeko moduan dago? (2,57/5)

Balorazioa:

Lehen hezkuntzan:

- LH: Irakasleok sortutakoak hobe. Material berri asko moldatu dira.
- Modu amateur-en ari direnaren sentsazioa dago.
- Materialak ez dira beti berrerabilgarriak. Baina baliagarriak izan daitezke besteentzat, egindakoa ezagutzeak laguntzen duelako.
- Barrurako lana egiteko ohitura nabaria da. Sareratzeko kultura garatu beharrean gaude.
- Materialak sortzeko beste bide batzuk jorratu behar dira: web-semantikoan, Irale R-400n...
- Liburu digitalekin arrakastarik ez da somatzen, ez dira erantzun ona gertatzen ari. Ingurune itxiegiak dira.
- Esperientziak aipagarrienak: Matematikan Snappet tabletetan, Matific (gamifikazioa), irakurketan Ta-tun eta idazketan Texthelp.

Bigarren hezkuntzan:

- Paperezko liburuekin gertatzen ez den bezala urte baterako bakarrik dira lizentzia digitalak.
- Ez da legala ez partekatzea (baten iritziz: denok gara hezkuntzako langileak eta gure lanaren baitan sortzen ditugun gauzak enpresarenak dira).
- Proposatzen da edukiak partekatzeko orduan erabili daitezkeen esaldiak eta formulak modu argi batean biltzea eta denontzako erreferentziatzko leku batean jartzea. Sortzen duzunean zerbait kopiatu eta zure materialean aukeratutako lizentzia jarri.

Programazioan konpetentzia digitala landu dutenak

Galdesortan:

- Ebaluatzeke modu berriak indarrean jarri dira (2,83/5)
- Konpetentzia digitala garatzeko (lantzeko, ebaluatzeke) balio izan zaigu proiektua (4,00/5)

Balorazioa:

Lehen hezkuntzan:

- Konpetentzia digitalean ikaslearen irteera profila kontuan hartzen hasi da.
- Ikasleen produkzioei garrantzia ematen zaie eta hasi dira erabiltzen ikaslearen portfolioak.

Bigarren hezkuntzan

- Teknologia digitalak eskatzen dio irakasleari bere konpetentzia digitala areagotzea tresna berriak erabiltzeko, materialak sortzeko edo dituen ikasleak kudeatzeko sistemak.
- Ikasleek zerbitzu eta ingurune desberdinetan lan egiten ohitzen dira.

Ikasteko Ingurune Birtualaren inguruan gauzatu direnak

Galdesortan:

- Ikasteko Ingurune Birtualaren erabilera hedatu da ikastetxe osora (3,7/5)

Balorazioa:

Lehen hezkuntzan:

- Gsuite da lan ingurunea ikastetxe guztietan.

Bigarren hezkuntzan:

- Gela birtualak: Moodle Vs Classrom: Moodle galtzaile classroomen aurrean. Arrazoiak: erabilerraza, ikusgarriago, kudeaketa errazten du.

Irakasleengan foku jarri dutenak: koaderno digitala

Galdesortan:

- Proiektuan parte hartu duten irakasleen arteko elkarlana sustatu da (3,52/5)
- Ikastetxeko gainontzeko irakasleen arteko elkarlana sustatu da proiektuari esker (3,17/5)

Balorazioa:

Lehen hezkuntzan:

- Sailaren koaderno digitala ez da egokia, ikuskaritzan moldatzen ari diren arren.
- Inika edo beste enpresetako aplikazioak erabiltzen dira.
- Aukera eman du formazioa egiteko, denbora gutxi izan bada ere, justifikazioaren menpe ibili direlako.
- Formakuntza klaustro osora hedatu da.
- Urtero egin behar da (irakasle berriak).

Bigarren hezkuntzan:

- Zenbait ikastetxetan ezinbestekoa da Hezkuntzako aplikazioak erabiltzea, baina asko kostata. Aplikazio horien erabilgarritasuna, egokitasuna eta funtzionalitateak zalantzan jartzen dira.

Azpiegituretan indarra jarri duten proiektuak: konektibitatea, gailuak...

Galdesortan: Ikasle bat /ordenadore bat eredu oinarritzko abiapuntua izan da (3,52/5)

Balorazioa:

Lehen hezkuntzan:

- Arbel digitalak soberan egon dira hainbat lekutan.
- Wifiak mugatu du erabilera. Ikastetxe batzuk inbertsioak egin dituzte wifi ona jartzeko. Hemen ere eskola eta administrazioaren artean arrakala itzela.
- 1x1 ez da beti beharrezkoa. Chromebook nagusi. Ubuntu ere erabiltzen da batzuetan eskola 2.0koekin.

Bestelako oharrak

Galdesortan:

- IKT Ereduaren auditoritza pasatu beharrak lagundu egin digu Sarehezkuntza proiektuan (2,96/5)
- Diru laguntza nahikoa izan da proiektua hornitzeko (1,91/5)
- Koordinatzaileak "liberazioa" izatea ezinbestekoa izan da proiektua gauzatzeko (4,78/5)
- Proiektuaz aparte koordinatzaileak IKT ohiko lanak egiteko erabili ditu orduak(4,22/5)
- Oro har, merezi izan du SHGelan parte hartzeak (4,61/5)
- Hasitako proiektuarekin jarraituko dugu (4,65/5)

Balorazioa:

Lehen hezkuntzan:

- IKT dinamizatzailea izatea ezinbestekoa da aurrera egiteko, proiektuarekin jarraitzeko, berrikuntzak eramateko, prestakuntza egiteko.
- Formulak bilatu behar dira: zerbitzu eginkizunak, sindikatuei bideratzea IKT dinamizatzailearen profila zehazte aldera.
- Hainbat ikastetxeetan familiak inplikatzeko oso inportantea izan da.

Bigarren hezkuntzan:

- Erreferentziazko irakasleak
 - Ezinbestekoak dira erreferentziazko irakasleak ikastetxe barruan:
 - IKT dinamizatzailea ezinbesteko figura bezala.
 - Ikastetxeko beste irakasle batzuei protagonismoa emanez, barruko jardunaldien bitartez edo trukatzeko uneak kontenplatu.
 - Besterik ez bada irakasleen arteko portfolio komunak sortu publikatzen diren gauzetara iristeko eta ikusteko bidea izango direnak.
- Zuzendaritzaren papera
 - Zuzendaritza taldeak beldurrik gabe erabakiak hartu behar ditu eta lan moduak markatu aldaketak eragiteko.

3. Tailerrak

[Txikipedia](#) (8-12) tailerra Koldo Biguri Elhuyar-reko kideak eman zuen.

[Eus Wikipedia](#) (12-16) tailerra Galder Gonzalez wikilariak eman zuen.

4. Gasteizkada ginkana-ren aurkezpena Gasteizko Berritzeguneko Sergio Tejerok eskainita <http://www.wmcproject.org/gasteiz/>

“Sare Hezkuntza Gelan” Topaketa 2018-5-30

Konklusioak

- Sare_Hezkuntzaren deialdiaren zenbait baldintzak berrikusi beharko lirateke, esatebaterako: lehenengo ikasturtean diru guztia (kopuru handiak) gastatu behar izateak ikastetxeko berezko dinamika zailtzen duelako. Hezkuntza Sailaren ekimenak eta ikastetxeen beharrak -dinamikak batera joan beharko lirateke.
- Egindako formazio saioek klaustro osoan dute eragina.
- Sare_Hezkuntzaren onuretako bat da ikastetxe barruan dauden dinamikei bultzada ematen diela, erabakiak hartzeko autonomia eta heldutasuna indartuz.
- Zuzendaritza taldeek erabili beharko lukete SHg proiektua irakaspraktikak eraldatzeko-tresna bezala, etorkizunari begira beraien proiektuetan txertatuz.
- Ikastetxeak jakitun eta partaide izan beharko lirateke Hezkuntza Sailak hartzen dituen erabakietan, etorkizunean bidelagun izateko .
- Hezkuntza Sailak hezkuntzarako aplikazioak sortu edota eskaini behar lituzke “bezeroengan” (ikastetxeak, ikasleak, irakasleak, familiak) pentsatuz, ikastetxeei laguntzeko eta oztupoak ekiditzeko.
- Edukiak partekatzeko kultura oraindik ez dago hedatua gurean. Irakasleak bere ikasleen aurrean edukiak sortzeko eta aurkezteko eredu izan behar dira, gerora edukiak modu publikoan argitaratzea errazago egingo baitzaie.
- **Ikastetxe txikienetatik hasita handietaraino proiektu digital orotan ezinbestekoak dira erreferentziazko pertsonak.** Batetik, gailuen parkea gero eta ugariagoa delako, bestetik erabilera areagotu egin delako. Alderdi bakoitzak bere arduradunak eta erantzuteko moduak eskatzen du. Irakaskuntza metodologia berriak, praktika onen ereduak, arazo teknikoei aurre egin, lanerako baldintza tekniko egokiak bermatu... eta horretarako etengabeko prestakuntza behar dute.
- Ikastetxeen digitalizazioa, konpetentzia digitalak, aldaketa metodologikoa lantzea aspalditik datorren erronka da eta ez da bukatzen “Sare Hezkuntza Gela” proiektuan bi urtean parte hartu izanagatik.